



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.12.20

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso

Ez bertaratutako zinegotzia:
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea :
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko abenduaren hogeian, 12:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ez-ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Tolosaldeko enpresek langabezia dauden pertsonak kontratatzeko 2018 ekitaldirako Lanbidek sustatutako diru-laguntzen banaketa onartzea.
2. Onartzea Tolosako Amarotz Auzoko "AUZOETXE" eraikin osoa eta Anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzearen kontratazio espedientea eta lizitazio jardunbideari hasiera ematea.
3. Tolosako Bedaio auzoan, frontoiaren ondoko kalearen berrurbanizatze obraren kontratazio espedientea huts deklaratzeko.
4. Onartzea Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko onartu zen horniduraren kontratazio espedientearen aldaketa.
5. 69 /2018 eta 72/2018 faktura-zerrendak.



1. TOLOSALDEKO ENPRESEK LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO 2018 EKITALDIRAKO LANBIDEK SUSTATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN BANAKETA ONARTZEA.

Aurrekariak:

I.- 2018ko ekainaren 13an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2018ko ekitaldiko laguntza deialdiari buruzko ebazpena eman zuen (2018ko ekainaren 13ko EHAAn 3179. zkia duena).

II.- 2018ko uztailaren 11n, Tolosaldeko enplegu plana aurrera eramateko foroa elkartu zen, bertan eskaera onartu zen.

III.- 2018ko uztailaren 11ean, Tolosako Udalak, eskualdeko udalen izenean, Lanbideko bulegoetan egin zuen aipatutako eskaera, 231765 zenbakiarekin.

IV.- 2018ko urriaren 3an, Lanbide-Euskal enplegu zerbitzuko zuzendari nagusiaren bidez, Diru-Laguntza onartutzat eman zen, R/18-LPE-04G espediente zkiarekin. Eskaeran eginiko proposamena onarturik, Tolosako Udalari 299.007,84 € dagokio eta diru-laguntzaren banaketa azaltzen da:

MOTA	LANPOSTUAK	KOPURUA
1. ENPLEGUA SUSTATZEA	2	25.000 €
2. KONTRATAZIO LAGUNTZAK	40	240.000 €
3. KONTRATAZIO LAGUNTZAK	6	34.007,84 €
GUZTIRA		299.007,84€

V. 2018ko azaroaren 9an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkian, Tolosa eskualdeko langabetuak kontratatzeke diru-laguntza deialdia egin zen. Bertan ondorengo puntuak aipatzen ziren.

“a) Kontratuak honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

- Diruz lagundutako epeak izan behar du, gehienez, 6 hileko kontratazioa, eta egon behar du deialdiaren eremuaren barruan. Kontratu guztiek sinatuta egon behar dute abenduaren 31 baino lehen.



- Kontratazioak egingo dira langabetuekin, baldin eta kontratazioko unean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta badaude eta 2018ko ekainaren 21ean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan erroldatuta, lehentasunezkoa delarik Tolosaldea eskualdeko udalerrri batean egotea.

- Kontratazio-multzoak bermatu behar du emakumeen kontratazioa, zeina gutxienez programako kontratazio guztien % 40a izango den.

- Ez izatea ahaidetasun-harremanik enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duten, edo zuzendaritzako edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kideen ezkontidearekin, oinordekoarekin eta gainerako senideekin, odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino, hura barne. Hori egiaztatzeko enpresak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar du (I. Eranskina)

- Aurreko deialdietan lan-harremanik eduki ez izana kontratua egiten duen enpresarekin edo tokiko entitatearekin.

- Kontratazio horiek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den pertsona lanean hasi aurre-aurreko 3 hiletan enpresak batez beste duen langile kopuruaren gainean.

b) Kontratazio mota eta diru-laguntzaren zenbatekoa segidan agertzen dena izango da:

- Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa hau izango da: 45 kontratu lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, gehienez 6.000 eurokoa eta kontratu 1, lanaldi osokoa lau hilekoa eta gehienezko 4.007,84 euroko diru-laguntzarekin.

- Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen % 75 baino handiagoak.

c) Baremazioa egingo da ondorengo irizpide hauen arabera:

- Kontratuak 6 hilabete baino gehiagoko iraupena badu: puntu 1.

- 55 urtetik gorako pertsona bat kontratatzeagatik: puntu 1.

- Emakumeak kontratatzeagatik: 2 puntu.

- Eskualdeko langabetuak kontratatzeagatik: puntu 1.

- Hazilan eta Txertatu programetan parte hartu duen pertsona bat kontratatzeagatik: puntu 1

- Tolosaldea Garatzenek antolatutako Enpleagunea 2017 programan parte hartu ez duten enpresek: puntu 1 gutxiago.

- Bikain edo Bai Euskarari euskararen kalitate-ziurtagiria: 1 puntu.

- Enpresa eskatzaileak 2017 – 2018ko laguntzen deialdian langabetuak kontratatzeko diru-laguntza bat lortu badu: puntu 1 gutxiago”



VI. Enplegua sustatzeko 2, eta 3.mota jarduerak aurrera eramateko 2018ko azaroaren 15ean, Lehiberri Zentroan, Tolosaldea Garatzen eta Lanbiderekin batera, "Enplegunea 2018" ospatu zen.

80 lanpostu kudeatu ziren eta horietatik diru-laguntza jasotzeko eskaera egin eta bertaratu zirenak 22 enpresa izan ziren egun horretan bertan partaideei elkarrizketak egin ahal izateko. Beste 17 enpresa izan dira gainontzeko egunetan beraien enpresetan elkarrizketak egin dituztenak.

VII. 2018ko abenduaren 12an, Tolosaldea Garatzeneko eta Tolosako Udaleko Enplegu Departamentukoek irizpide hauek kontutan izanik, aztertu zituzten jasotako eskaerak eta honako proposamena egin zuten:

- 33 enpresentzat 43 lan eskaintza onartu ziren,

2 MOTAKOAK

ENPRESAK	LANPOSTUAK	DIRU-LAGUNTZA
OÑATIVIA GONZALEZ DE URIARTE, MARIA JESUS	1	6.000,00 €
AMAYA AGERRI LEUNDA (KOKKA)	1	6.000,00 €
ARRETA LOGIKA, S.L.	2	12.000,00 €
ABALTZISKETA LOGIKA S.L.	1	6.000,00 €
JATORKIN-ALNAHDA ASOCIACIÓN	1	6.000,00 €
ARIN, SUBIJANA Y ASOCIADOS S.L.	1	6.000,00 €
LEIRE VEGAS MEDINA (IPAR ROLLER)	1	6.000,00 €
ETXEDEDENT SLP (DENTIEDER)	1	6.000,00 €
ARRIETOKIETA ZUGARRAMURDI IRIGOYEN	1	6.000,00 €
ASOC SORDOS TOLOSALDE GOIERRI GAINDITZEN	1	6.000,00 €
BASOKO-MUEBLES GARCES S.L	1	6.000,00 €
IÑAKI BEGIRISTAIN OIARTZABAL (BEGIRISTAIN SAGADOTEGIA)	1	6.000,00 €
JON CIPITRIA OLANO (EGUZKITZA)	2	12.000,00 €
KODIKLINIK, S.L.	2	12.000,00 €
GARAICOETXEA TXAKOLINDEGIA, S.L.	2	12.000,00 €
ALEX ARRIETA QUINTANA	1	6.000,00 €
CHROMA BRANDING, S.L.	1	6.000,00 €
REPARACIÓN DE MAQUINARIA SAIZAR, S.L.	1	6.000,00 €
ANA M SAN SEBASTIAN OYARZABAL	1	6.000,00 €



ENPRESAK	LANPOSTUAK	DIRU-LAGUNTZA
EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK, S.L.	1	4.663,26 €
ORIATO, S.L.	2	12.000,00 €
ION MARICHALAR AGUIRREZABALA	1	6.000,00 €
BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA, S.L.	4	24.000,00 €
ISASTEGI SAGARDOTEGIA, S.L.	1	6.000,00 €
JOSE IGNACIO AGUIRRE EGUEN	2	12.000,00 €
PRECOCINADOS LANBROA, S.L.	1	6.000,00 €
LARRETA EZ	1	6.000,00 €
ALIMENTACION ECEIZABARRENA, S.L.	1	6.000,00 €
OTEGUI ERAIKUNTZAK, S.L.	1	6.000,00 €
DIONISIO ORMAZABAL, S.A.	1	6.000,00 €
LAIATZEN, S.L.	1	6.000,00 €
GUZTIRA	40	238.663,26€

3 MOTAKOAK

ENPRESAK	LANPOSTUAK	DIRU-LAGUNTZA
APLICACIONES PARA CONTROL DE FLUIDOS, S.L.	1	6.000,00 €
LANDANET ZERBITZUAK, S.L.	2	12.000,00 €
GUZTIRA	3	18.000€

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea "mota 2" diru-laguntzaren ondorengo banaketa :

1) M Jesus Oñativia Gonzalez de Uriarte-ri Enplegune 2018 programaren baitan saltzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.

2) Amaya Aguerri Leunda-ri (KOXKA) Enplegune 2018 programaren baitan ileapaintzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.



- 3) Arreta Logika, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan bi teleoperadore kontratatzeko 12.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 4) Abaltzisketa Logika, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan teleoperadore bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 5) Jatorkin-i Enplegune 2018 programaren baitan hezitzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 6) Arin Subijana y Asociados, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan diseinu grafikoan aditua den saltzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 7) Leire Vegas Medina-ri (Ipar Roller) Enplegune 2018 programaren baitan saltzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 8) Etxebeden SLP-ri (Dentieder) Enplegune 2018 programaren baitan administrari komertzial bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 9) Arritokieta Zu,garramurdi Irigoyen-i Enplegune 2018 programaren baitan bideo-errealizadore bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 10) Asoc Sordos Tolosalde Goierri Gainditzen-i Enplegune 2018 programaren baitan interprete bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 11) Muebles Garces, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan saltzaile-dekoratzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea
- 12) Iñaki Begiristain Oiartzabal-i (Begiristain Sagardotegia) Enplegune 2018 programaren baitan zerbitzari bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 13) Jon Cipitria Olano-ri (Eguzkitza) Enplegune 2018 programaren baitan sukaldari bat eta zerbitzari bat kontratatzeko 12.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 14) Kodiklinik, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan 2 kodifikatzaile kontratatzeko 12.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 15) Garaikoetxea txakolindegia, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan turismo ekitaldi dinamizatzaile bat eta hondeamakinarekin lan egiteko langile bat kontratatzeko 12.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 16) Alex Arrieta Quintana-ri Enplegune 2018 programaren baitan saltzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 17) Chroma Branding, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan komunikazio digitalerako langile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 18) Reparación De Maquinaria Saizar, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan teknikari komertzial bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 19) Ana M San Sebastian Oyarzabal-i Enplegune 2018 programaren baitan biltegizain bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.



TOLOSAKO
UDALA

- 20) Egimendi Nekazal Tresnak, S.L. Enplegune 2018 programaren baitan biltegizain bat kontratatzeko 4.663,26€ko diru-laguntza ematea.
- 21) Oriato S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan biltegizain bat eta komertzial bat kontratatzeko 12.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 22) Ion Marichalar Aguirrezabala-ri Enplegune 2018 programaren baitan iturgin bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 23) Belarmendi Mendiko Nekazaritza, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan lau langile kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea, postu bakoitzeko. Guztira 24.000€.
- 24) Isastegi Sagardotegia, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan sukaldari bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 25) Jose Ignacio Aguirre Eguen-i Enplegune 2018 programaren baitan sukaldari bat eta zerbitzari bat kontratatzeko 12.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 26) Precocinados Lanbroa, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan garbiketarako langile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 27) Larreta EZ-i Enplegune 2018 programaren baitan baserriko lanak egiteko langile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 28) Alimentación Eceizabarrena, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan saltzaile laguntzaile bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 29) Otegui Eraikuntzak, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan kamioi gidari bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 30) Dionisio Ormazabal, S.A.-ri Enplegune 2018 programaren baitan biltegizain bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 31) Laiatzen S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan biltegizain bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- Onartzea mota 3 diru-laguntzaren ondorengo banaketa

- 1) Aplicaciones para Control de Fluidos, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan eskaintzetako teknikari bat kontratatzeko 6.000 €-ko diru-laguntza ematea.
- 2) Landanet Zerbitzuak, S.L.-ri Enplegune 2018 programaren baitan bi komertzial kontratatzeko 12.000 €-ko diru-laguntza ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitza eta Enplegu Departamentuari ematea.



2. ONARTZEA TOLOSAKO AMAROTZ AUZOKO "AUZOETXE" ERAIKIN OSOA ETA ANBULATORIOKO LOKALAREN ZATIKAKO BERREGOKITZEAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Amarotz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeak egiteko obra-kontratua.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OABI0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehena.- Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, besteak beste, Tolosako Amarotz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeen proiektua, aho batez onartu zuen. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa zen zuinketa-akta jaso zen espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera. Behin jardunbide osoa burututa, eskaintzak aurkezteko epean enpresek ez zuten eskaintzarik aurkeztu eta ondorioz, 2018ko urriaren 31n Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen **huts deklaratzeari aipatutako lizitazioa**.

Bigarrena.- Aurrekoaren ondorioz eta obren beharra ikusirik, 2018ko abenduaren 17an Hirigintza Departamentuko buruak egindako txostenarekin, berriro martxan jarri zen obraren lizitazioa. Horrek ondorio dakar, Tolosako Amarotz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeak egiteko obra-kontratua jasotzen dituen proiektua berdin mantenduko dela eta bertan aldaketak egin beharko ez direla; beraz, aipatutako proiektuak aginduko du lizitazio jardunbidea honetan ere.

Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jasotzen da espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.



Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

“Auzoetxe” eraikinaren berregokitzeak, barnealdearen eraberritze osoan datza. Eraikinaren kanpoaldeari dagokionez, fatxadetan esku hartuko da, kanpoko arotzeria aldatuz leiho-oholen ordeztasianak jarritz, eta fatxadak dituen kalteak konponduz, margo-lanak egiteko azkenik.

“Auzoetxe”, eraberritu ondoren, egun duen erabilera bera izango du. Esku-hartze honen xedea hainbat aldaketetan oinarritzen da, eraikinaren instalazioak hobetzea, barne antolamendua egungo beharretara egokitzea, erosotasuna bermatzeko isolamendua hobetzea, akaberak aldatzea, kanpoko arotzegiak ordezkatzeta eta leiho-oholen ordeztasianak jartzea besteak beste. Nahiz eta trenkada gehienak mantendu eta egun dauden instalazio gehienak erabili, eraikuntzak, era bateko aldaketa jasango du, itxurari eta erosotasun baldintzei dagokienez.

Anbulatorioko esku-hartzearen helburua hau osatzen duten eskakizun eta instalazioak irisgarritasun araudira (68/2000 Dekretua) egokitzea da. Ateen irekierek gutxienez 90 zmk-ko tartea izan dezaten, lau ale aldatu egingo dira. Gainera, egungo bainugelak bota egingo dira, gelaurre eta bainugela irisgarri bat eraikitzeko. Hauetan, hurrenez hurren, oztoporik gabeko 180 zm eta 150 zm-ko diametrodun zirkunferentziak inskribatzea posible izango da. Iturgintza, saneamendu eta argindar-argiteria instalazio berriak egingo dira, dagokien guneeetan.

SPKLren 232.1.c) eta 5. artikuluan, hau xedatzen da: *“Clasificación de las obras. 1. A los efectos de elaboración de los proyectos se clasificarán las obras, según su objeto y naturaleza, en los grupos siguientes:*

- a) Obras de primer establecimiento, reforma, restauración, rehabilitación o gran reparación.*
- b) Obras de reparación simple.*
- c) Obras de conservación y mantenimiento.*
- d) Obras de demolición.*

“3. El concepto general de reforma abarca el conjunto de obras de ampliación, mejora, modernización, adaptación, adecuación o refuerzo de un bien inmueble ya existente.”.

Beraz aurrekoa aintzat harturik, proiektaturiko lanak, **erreforma lanak** direla ondorioztatu da, ondorengo hauek kontuan hartuta:

- Egingo diren lanak, erabileratik sorturiko mantenu soila gainditzen dute.
- Lan horiek ezin dira kalifikatu konponketa gisa, SPK Legeak bere 232.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: *“Se consideran como obras de reparación las necesarias para enmendar un menoscabo producido en un bien inmueble por causas fortuitas o accidentales.”.*
- Birgaitze lanak bezala ezin dira kalifikatu, Legeak hau esaten baitu: *“7. Son obras de rehabilitación aquellas que tienen por objeto reparar una construcción conservando su estética, respetando su valor histórico y dotándola de una nueva funcionalidad que sea compatible con los elementos y valores originales del inmueble.”.*



Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosako Amartz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta ambulatorko lokalaren zatikako berregokitzeak egiteko obra-kontratua erreforma lanak direla esan daiteke.

Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen ditu aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

3.- Kontratazio-espedientea, kontratuaren izaera eta kaudimena

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipaturiko Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko Arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Proiektua: Memoria, Preskripzio Teknikoen Orria eta Aurrekontua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria

Halaber, espedientea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat, obra kontratua hain zuzen ere, aipatu Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzeko izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoak agertzen dira: "*construcción general de edificios y obras singulares de ingeniería civil (puentes, túneles, etc.)*". Bestalde, obra kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehen: SPKLren 99.3 artikulua hau xedatzen du loteetan banaketari buruz: "*Siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan, deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, pudiéndose reservar lotes de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional cuarta.*"

No obstante lo anterior, el órgano de contratación podrá no dividir en lotes el objeto del contrato cuando existan motivos válidos, que deberán justificarse debidamente en el expediente, salvo en los casos de contratos de concesión de obras."



Beraz, aurrekoa kontutan harturik, kontratuaren xedea, zenbatekoa eta iraupena aintzat harturik, loteetan banatzea ez da komenigarria ikusten, ez duelako konpetentzia era bidegabekoan mugatzen.

Bigarrena.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **287.766,24** eurokoa da.

Hori horrela, nahiz eta obra kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikulua arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 20.1 artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (5.548.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1.a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 3.000.000 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Hirugarrena.- Bestalde, Baldintza Administratiboen Pleguaren I titulua IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11, atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86, 87, eta 88. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, kontuan hartu behar da kontratuaren balio zenbatetsiak ez duela gainditzen 500.000 euroko kopurua. Beraz:

- Enpresa berriek parte har dezakete lizitazioan (88.2 artikulua).
- Lizitatzailen gaitasunari dagokionez, lizitatzailen sailkapena ez da nahitaezkoa izango (77.1.a) artikulua). Hala ere, sailkapenak gaitasuna eta kaudimena egiaztatuko ditu botere esleipendunaren aurrean (artikulu bera, bigarren paragrafoa)

Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *“La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.”.*



4.- Espediente mota

SPK Legeak bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

5.- Kontratuaren ezaugarriak

Obra kontratua gauzatzeko gehienez **HEMEZORTZI ASTE** ezarri dira, zuinketaren egiaztapen akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 348.197,15 euro, horietatik 287.766,24 € printzipala eta 60.430,91 euro BEZ.-ari dagozkionak.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, udal aurrekontu-partida honen kargura finantzatzeko dela: **0700.622.02.920.31.2018.**

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

6.- Esleipena egiteko jardunbidea eta modua

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espeditente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitate, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori



betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere.

Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpideak ehuneko 40a suposatzen dute eta beharrezkoa izango da atal horretan 20 puntu baino gehiago lortzea lizitazioetik kanpo geratu ahal ez izateko.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPK Legearen 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da eta artikulua horretan bertan xedatutako baldintzak betez gero, sei hilabetekoa ere izan daiteke, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 €-ko kopurua gainditzen. Kasu honetan, aipatu Legearen 243.3 atalean xedaturiko kasu bereziaren aurrean gaudela iradoki du Idazkari honek.

7.- Administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoaren orria

Kontratazio-espeditarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoaren Orria aztertu dira, SPK Legearen 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

8.- Kontratazio-organoa

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, printzipioz, eskumena Alkate-Udalburuarena da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkion besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arazoengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPK Legearen 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Amartz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeen obrak kontratatzeke espedientea.

BIGARRENA.- Lizitazioa hastea eta horretarako oinarritzko aurrekontua onartzea, ondokoaren arabera: Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 348.197,15 euro, horietatik 287.766,24 € printzipala eta 60.430,91 euro BEZ.-ari dagozkionak.

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **hemezortzi astetako**a izango da, obraren zuinketa egiaztapeneko akta izenpetu sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

LAUGARRENA.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

BOSTGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko kontratugilearen profilean, lizitatuzaileek beren proposamenak **hogei egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzailtza Departamentuari jakinaraztea.

3. TOLOSAKO BEDAIO AUZOAN, FRONTOIAREN ONDOKO KALEAREN BERRURBANIZATZE OBRAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA HUTS DEKLARATZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalearen berrurbanizatze obra.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OASI004

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren



TOLOSAKO
UDALA

arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehena.- Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 12an egindako bilkuran, besteak beste, Tolosako Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalearen berrurbanizatzeko proiektua, aho batez onartu zuen. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jaso zen espedientearen, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuaren helburuak ondorengo hauek dira:

- Auzotar eta kanpotarrei zerbitzuak eskuragarri jartzeko errepidea zabaltzea eta horrenbestez aparkalekuak irabaztea, honela, erabilpen publikoa duten eraikinak argiztapen berriaz lotzen dira.
- Ur-hornidurako sarea berritzea.
- Gaur egun dagoen argiteria eskasa hobetzea, eraikin eta zerbitzuen arteko lotura osatuz.

Bigarrena.- Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko azaroaren 14an egindako bilkuran, obra-kontratua esleitzeko lizitazio publikoa martxan jartzea erabaki zuen eta zegokion iragarkia Kontratatzailearen Profilean publikatu zen.

Hauek dira lizitazioaren oinarritzko datuak:

- CPV: 45233222-1
- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZ barne):138.514,51euro.
- Balio zenbatetsia:114.474,80 euro.
- Epea: 4 hilabete zuinketaren egiaztapen akta sinatzen denetik.
- Prozedura: ireki sinplifikatua.
- Behin betiko bermea: lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %5a.
- Proposamenak aurkezteko epea: 20 egun natural.
- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2018ko abenduaren 5a.

Hirugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, enpresek ez dute proposamenik aurkeztu; beraz, 2018ko abenduaren 17an Kontratazio Mahaia bildu zen eta aho batez Kontratazio-Organoari aipatutako emakidaren lizitazioa huts deklaratzeko proposatu zion.

3.-APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.



Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2018ko abenduaren 17an Kontratazio Mahaiak proposatutakoa jarraituz, aipatutako obra-kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko.

BIGARRENA.- Huts deklaratzearen berri kontratatzailearen profilean iragartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Idazkaritza, Kontuhartzailatza eta Hirigintza Departamentuei jakinaraztea.

4. TOLOSAKO UDALETXEAREN TOKIKO EREMUAREN INFORMATIKA-SAREAK BERRITU ETA ZABALTZEKO ONARTU ZEN HORNIDURAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ALDAKETA ONARTZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko hornidura.
Unitate sustatzailea:	Informatika
Espedientea:	2018HASI0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Informatika Departamentuko buruak 2018ko azaroaren 31n egindako txostenaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzailatzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere IV. Kapituluan (298. artikulutik aurrera),



Hornidura kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, alokairua, egikaritzea, prezioaren ordainketa eta kontratua etetea beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako txostenean, administrazio baldintza zehatzen agiria osatzeko oinarrizko datuen inguruan egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, bermealdia eta esleipen irizpideak.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen ziren.

Bosgarrena.- Behin pleguak onartuta, lizitazioari hasiera emanda eta hori Kontratatzailearen Profileen publikatuta, Udaleko Informatika Departamentuko buruak 2018ko abenduaren 19an egindako txosten baten bitartez, onartutako pleguen aldaketa eskatzen du, epe batzuk luzatzeko asmoz. Izan ere Gabonetako datak eta eragiketen konplexutasuna dela eta, komenigarria ikusi da egikaritze epe orokorra luzatzea eta eskaintzak aurkezteko epea ere luzatzea. Edonola ere, Preskripzio Teknikoen Pleguko 3.2.5 puntuko lanek eginda egon beharko dute, sareko elektronika guztia instalatuarekin, konfiguratuta eta testatuta, **beti ere, 2019ko otsailaren 8rako**. Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegitura ondo funtzionatzen duela bermatu beharko du.

3. ARAUBIDE JURIDIKOA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, bere 122. artikuluan hau xedatzen du:

“Artículo 122. Pliegos de cláusulas administrativas particulares.

1. Los pliegos de cláusulas administrativas particulares deberán aprobarse previamente a la autorización del gasto o conjuntamente con ella, y siempre antes de la licitación del contrato, o de no existir esta, antes de su adjudicación, y solo podrán ser modificados con posterioridad por error material, de hecho o aritmético. En otro caso, la modificación del pliego conllevará la retroacción de actuaciones.

2. En los pliegos de cláusulas administrativas particulares se incluirán los criterios de solvencia y adjudicación del contrato; las consideraciones sociales, laborales y ambientales que como criterios de solvencia, de adjudicación o como condiciones especiales de ejecución se establezcan; los pactos y condiciones definidores de los derechos y obligaciones de las partes del contrato; la previsión de cesión del contrato salvo en los casos en que la misma no sea posible de acuerdo con lo establecido en el segundo párrafo del artículo 214.1; la obligación del adjudicatario de cumplir las condiciones salariales de los trabajadores conforme al Convenio Colectivo sectorial de aplicación; y las demás menciones requeridas por esta Ley y sus normas de desarrollo. En el caso de contratos mixtos, se detallará el régimen jurídico aplicable a sus efectos,



TOLOSAKO
UDALA

cumplimiento y extinción, atendiendo a las normas aplicables a las diferentes prestaciones fusionadas en ellos.

Los pliegos podrán también especificar si va a exigirse la transferencia de derechos de propiedad intelectual o industrial, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 308 respecto de los contratos de servicios.

3. Los pliegos de cláusulas administrativas particulares podrán establecer penalidades, conforme a lo prevenido en el apartado 1 del artículo 192, para los casos de incumplimiento o de cumplimiento defectuoso de la prestación que afecten a características de la misma, en especial cuando se hayan tenido en cuenta para definir los criterios de adjudicación, o atribuir a la puntual observancia de estas características el carácter de obligación contractual esencial a los efectos señalados en la letra f) del apartado 1 del artículo 211. Asimismo, para los casos de incumplimiento de lo prevenido en los artículos 130 y 201.4. Los contratos se ajustarán al contenido de los pliegos de cláusulas administrativas particulares, cuyas cláusulas se consideran parte integrante de los mismos.

5. La aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas particulares corresponderá al órgano de contratación, que podrá, asimismo, aprobar modelos de pliegos particulares para determinadas categorías de contratos de naturaleza análoga.

6. La Junta Consultiva de Contratación Pública del Estado deberá informar con carácter previo todos los pliegos de cláusulas administrativas particulares en que se proponga la inclusión de estipulaciones contrarias a los correspondientes pliegos generales.

7. En la Administración General del Estado, sus Organismos Autónomos, Entidades Gestoras y Servicios Comunes de la Seguridad Social y demás Administraciones Públicas integrantes del sector público estatal, la aprobación de los pliegos y de los modelos requerirá el informe previo del Servicio Jurídico respectivo. Este informe no será necesario cuando el pliego de cláusulas administrativas particulares se ajuste a un modelo de pliego que haya sido previamente objeto de este informe.”.

4. ONDORIOAK

Pleguetan jartzen zuena:

KARATULAN:

H) IRAUPENA / DURACIÓN

Kontratuaren iraupena / Duración del contrato: Hornitu, instalatu, konfiguratu, mugitu, prestatu eta ebazpena balidatzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da kontratua sinatzen denetik. Plegu teknikoko 3.2.5 puntuko lanek eginda egon beharko dute, sareko elektronika guztia instalatuarekin, konfiguratuta eta testatuta, beti ere, 2019ko otsailaren 8rako. Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegitura ondo funtzionatzen duela bermatu beharko du.

El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y



validación de la solución es de 1 mes contado desde la fecha de formalización del contrato. Las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019. Asimismo, durante un plazo de 2 años desde la firma del contrato, la empresa adjudicataria deberá garantizar el correcto funcionamiento de la infraestructura creada.

M) ENTREGATZEKO EPEA / PLAZO DE ENTREGA

Hornitu, instalatu, konfiguratu, mugitu, prestatu eta ebazpena balidatzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da kontratua sinatzen denetik. Plegu teknikoko 3.2.5 puntuko lanak eginda egon beharko dute, sareko elektronika guztia instalatuarekin, konfiguratuta eta testatuta, beti ere, 2019ko otsailaren 8rako. Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegitura ondo funtzionatzen duela bermatu beharko du.

El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y validación de la solución es de 1 mes contado desde la fecha de formalización del contrato. Las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019. Asimismo, durante un plazo de 2 años desde la firma del contrato, la empresa adjudicataria deberá garantizar el correcto funcionamiento de la infraestructura creada.

PLEGUAREN I. ERANSKINEAN:

8.- Plazo de ejecución y lugar de ejecución. (Cláusulas 9, 50 y 53)

Plazo Total: El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y validación de la solución es de 1 mes contado desde la fecha de formalización del contrato. Las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019. Este plazo tiene atribuido el carácter de obligación contractual esencial. Asimismo, durante un plazo de 2 años desde la firma del contrato, la empresa adjudicataria deberá garantizar el correcto funcionamiento de la infraestructura creada.

17.- Forma de las proposiciones: (Cláusula 25,40)

Las proposiciones de las empresas licitadoras se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Tolosa, con sede en Plaza Zaharra 6A, 20400 Tolosa, de lunes a viernes y en horario de 07:15 a 13:00 horas, o por cualquiera de los demás medios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, durante el plazo de QUINCE (15) DÍAS NATURALES, a



contar desde el día siguiente a la fecha de publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante. Si éste coincide en sábado o festivo, el plazo finalizará el día hábil siguiente. En cualquier caso, las personas o empresas licitadoras deberán presentar su documentación de manera que quede garantizado el secreto de las proposiciones.

18.- Criterios de adjudicación. (Cláusulas 20)

Reducción del plazo de entrega y ejecución	<p>El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y validación de la solución es de 1 mes contado desde la fecha de formalización del contrato y se otorgará 0 puntos a la oferta que iguale el plazo máximo (1 mes) y se atribuirán 5 puntos por semana en que se reduzca el plazo máximo, con un máximo de 10 puntos.</p> <p>Para las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas, éstas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019, por lo que no se otorgarán puntos para este apartado, por tener ésta atribuido el carácter de obligación contractual esencial.</p>	10 puntos
--	--	-----------

28.- Penalizaciones. (Cláusulas 12, 41, 43, 46)

a) Por demora: de conformidad con lo establecido en el artículo 193 de la LCS y atendiendo a las especiales características del contrato derivadas de la localización, trascendencia e importancia del servicio que se presta en las instalaciones objeto del suministro, cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, se impondrá una penalidad diaria en la proporción de 100 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.

Las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas, deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019 y tienen atribuida la consideración de obligación contractual esencial y el incumplimiento de éstos será causa de resolución.

PLEGUETAN JARRI BEHAR DUENA:

KARATULAN:

H) IRAUPENA / DURACIÓN

Kontratuaren iraupena / Duración del contrato: Hornitu, instalatu, konfiguratu, mugitu, prestatu eta ebazpena balidatzeko gehienezko epea **hamalau astekoa** izango da



kontratua sinatzen denetik. Preskripzio Teknikoen Pleguko 3.2.5 puntuko lanak eginda egon beharko dute, sareko elektronika guztia instalatuarekin, konfiguratuta eta testatuta, beti ere, 2019ko otsailaren 8rako. Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegitura ondo funtzionatzen duela bermatu beharko du.

El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y validación de la solución es de **catorce semanas** contado desde la fecha de formalización del contrato. Las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019. Asimismo, durante un plazo de 2 años desde la firma del contrato, la empresa adjudicataria deberá garantizar el correcto funcionamiento de la infraestructura creada.

M) ENTREGATZEKO EPEA / PLAZO DE ENTREGA

Kontratuaren iraupena / Duración del contrato: Hornitu, instalatu, konfiguratu, mugitu, prestatu eta ebazpena balidatzeko gehieneko epea **hamalau astekoa** izango da kontratua sinatzen denetik. Preskripzio Teknikoen Pleguko 3.2.5 puntuko lanak eginda egon beharko dute, sareko elektronika guztia instalatuarekin, konfiguratuta eta testatuta, beti ere, 2019ko otsailaren 8rako. Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegitura ondo funtzionatzen duela bermatu beharko du.

El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y validación de la solución es de **catorce semanas** contado desde la fecha de formalización del contrato. Las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019. Asimismo, durante un plazo de 2 años desde la firma del contrato, la empresa adjudicataria deberá garantizar el correcto funcionamiento de la infraestructura creada.

PLEGUAREN I. ERANSKINEAN:

8.- Plazo de ejecución y lugar de ejecución. (Cláusulas 9, 50 y 53)

Plazo Total: El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y validación de la solución es de **catorce semanas** contado desde la fecha de formalización del contrato. Las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019. Este plazo tiene atribuido el carácter de obligación contractual esencial. Asimismo, durante un plazo de 2



años desde la firma del contrato, la empresa adjudicataria deberá garantizar el correcto funcionamiento de la infraestructura creada.

17.- Forma de las proposiciones: (Cláusula 25,40)

Las proposiciones de las empresas licitadoras se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Tolosa, con sede en Plaza Zaharra 6A, 20400 Tolosa, de lunes a viernes y en horario de 07:15 a 13:00 horas, o por cualquiera de los demás medios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, durante el plazo de DIECIOCHO (18) DÍAS NATURALES, a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil del contratante. Si éste coincide en sábado o festivo, el plazo finalizará el día hábil siguiente. En cualquier caso, las personas o empresas licitadoras deberán presentar su documentación de manera que quede garantizado el secreto de las proposiciones.

18.- Criterios de adjudicación. (Cláusulas 20)

Reducción del plazo de entrega y ejecución	El plazo máximo de suministro, instalación, configuración, migración, formación y validación de la solución es de catorce semanas contado desde la fecha de formalización del contrato y se otorgará 0 puntos a la oferta que iguale el plazo máximo (1 mes) y se atribuirán 2 puntos por semana en que se reduzca el plazo máximo , con un máximo de 10 puntos. Para las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas, éstas deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019, por lo que no se otorgarán puntos para este apartado, por tener ésta atribuido el carácter de obligación contractual esencial.	10 puntos
--	--	-----------

28.- Penalidades. (Cláusulas 12, 41, 43, 46)

a) Por demora: de conformidad con lo establecido en el artículo 193 de la LCS, cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, se impondrá una penalidad diaria en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.

En lo relativo a las operaciones relativas al punto 3.2.5 del Pliego de Prescripciones Técnicas, atendiendo a las especiales características del contrato, derivadas de la localización, trascendencia e importancia del servicio que se presta en las instalaciones objeto del suministro y que deberán estar realizadas, con toda la electrónica de red



instalada, configurada y testeada antes del 8 de febrero de 2019, se impondrá una penalidad diaria en la proporción de 10 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido, teniendo atribuida además la consideración de obligación contractual esencial y el incumplimiento de éstos será causa de resolución.

Hori horrela, Idazkaritza eta Kontuhartzailtza Departamentuek egindako aldeko txostenak ikusirik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea aipatutako aldaketak, oinarrizko lizitazio aurrekontua eta balio zenbatetsia aldatu gabe eta aldaketa hauek legearen arabera Euskadiko Kontratatzaillearen profilean argitaratzea, jarduerak hasierara ekarrita, horrek suposatuko du proposamenak aurkezteko 18 egunak, berriro kontatzen hasiko direla.

BIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzailtza, Informatika eta Idazkaritza Departamentuei jakinaraztea.

5. 69 /2018 ETA 72/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzailtzak **69/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **1.617,69 €**.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **69/2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.



TOLOSAKO
UDALA

Kontuhartzaitzak **72/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **323.048,47 €**.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 72/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Gobernu Batzarrak aho batez onartu ondoren, honako gai hau aztertu dira:

• **ONARTZEA GOYENECH E FUNDAZIOARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.**

Goyeneche Fundazioak eskaera egin zion (2017ko urriaren 17ko data duen 8815 sarrera-erregistro zenbakiarekin) Tolosako Udalar, Garaguneko erabiltzaileak garraiatu ahal izateko ibilgailu berria erosten laguntzeko.

Garaguneko erabiltzaile gehienak Tolosakoak dira, nahiz eta zerbitzua emateko espazioaren egokitasuna bermatzearen, Ibarren duen egoitza fundazio honek azken urteotan. Aurrez zeukaten ibilgailua hondatu egin zitzaizen, eta behin baino gehiagotan gelditu dira errepidean ez aurrera ez atzera; arrisku handia sortzen zuen horrek, garraiatutako pertsonen ezgaitasun kognitiboa dutelako, eta egoera horietan asko larritzen direlako. Ondorioz, zerbitzuaren eguneroko ekintzen programaketa baldintzatu beharrak, eta desplazamenduak ekiditeak larritzen zituen bertako profesionalak, erabiltzaileen parte-hartzea komunitatean arriskuan baitzegoen.

Udal-Gobernuak erabaki zuen diru-laguntza izenduna ematea, furgonetaren erosketaren finantzazioa osatzeko falta den kopurua asumituz: 7.358 €, hain zuzen ere.

Erabakiaren berri informatu zen Gizarte Zerbitzuen Batzorde Informatiboan, ekainaren 14an, parte-hartzaile guztien adostasuna jasoaz.

Horrela, 2018ko urriaren 30ean ospatutako Osoko Bilkuran onartu zen Fundación Goyenecheri ematea diru-laguntza izenduna, Garaguneko erabiltzaileek beren ohiko ingurune komunitarioan txertatuta mantentzeko ezinbestekoa duten garraibidea erosten laguntzeko.



TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia aintzat harturik, eta Udal teknikarien proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Onartzea Fundación Goyenecheri 7.359€ko diru-laguntza izenduna ematea, klausula hauen arabera:

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Fundación Goyenecheren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

* Garaguneko erabiltzaileak garraiatzeko ezinbestekoa duten ibilgailua erostea. (Garagunea Ibarra dago kokaturik, baina hainbat erabiltzaile Tolosakoak dira, eta eguneroko ekintzetan beren komunitatean txertatuta mantentzeko, ezinbestekoa dute garraiabide egokia)

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 7.358€ eurokoak izango dira, 0500.481.01.23100 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantziazio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.



TOLOSAKO
UDALA

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoaren arabera.

Erositako ibilgailuaren xedea aldatu edo salerosketa kontratua sinatu aurretik Tolosako Udalari kontsulta egin beharko dio diru-laguntza honen onuraduna den Fundación Goyenechek. Kasu horretan, Tolosako Udalak hartuko du emandako diru-laguntzaren erabilera egokia bermatzeko dagokion erabakia.

Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatu behar da «kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, baldin eta diru-laguntzen zenbatekoa 15.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada, eta kontu erraztuak jaso behar du, oro har, honako dokumentazio hau:



a) *Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.*

b) *Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.*

c) *Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.*

d) *Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.*

Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta, hau da, 2019ko urtarrilaren 31ean.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntza zati bakar batean ordainduko da, hitzarmen hau sinatzearekin batera, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztua izan delako aurrez.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinarazi behar zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzeari karteletan, plaka origarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egindako ekintzen izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun



TOLOSAKO
UDALA

eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.

Hamabigarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalauugarrena: Lan- eta zerga-legeria. *Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.*

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitekeen guztian.

Hemezortzigarrena: *Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.*

Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Kantitate horren % 100a ordaintzea Fundación Goyenecheri, justifikazio kontua aurkeztu duelako. Diru-laguntza hori 2018ko udal aurrekontuaren 500.481.01.23100 partidaren kargura finantzatu da.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren departamentuari.

• **ONARTZEA BIKARTE ELKARTEARI 2018. URTEAN DIRU-LAGUNTZA ZUZENA EMATEKO HITZARMENA.**

Bikarte elkarteak diru-laguntza eskaera egin du, irradiazio nuklearra jasan duten Errusiako eta Bielorrusiako haurrak, umezurtzak edo/eta desegituraturiko familietatik datozenak, aldi batean Tolosako familia batean egoteak eragiten dituen gastuak pixka bat arintzeko.

Laguntza honen bidez herriko familiekin kolaboratu nahi da, zeinak ekarpen izugarria egiten dieten neska-mutil hauei, beren osasunaren hobetzea eta garapen egokia bultzatze aldera ingurune toxiko hartatik salbu denboraldi bat pasa dezaten.

2018ko ekainaren 14ko Gizarte Politikako Batzorde Informatiboan landu zen gaia eta onartu zen diruz laguntzea elkarte hau, Oporrak Bakean programarekin dituen antzekotasunak eta irizpideak baloratuz.

Horrela, 2018ko Osoko Bilkuran onartu zen Bikarte elkarteri ematea diru-laguntza izenduna, Tolosara bidaiatu duen haurraren bidaia-gastuetan laguntzeko, hau da, 893 € emanda.

Diru-laguntza hori 0500.481.01.23100 partidaren kargura finantzatu da.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Bikarte Elkarteri 893 €-ko diru-laguntza izenduna ematea, klausula hauen arabera:

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Bikarte elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerraren barruan.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:



TOLOSAKO
UDALA

* Irradiazio nuklearra jasan duten Errusiako eta Bielorrusiako umezurtzegi edo eta familia desegituratuetatik datozen gazteen aldi baterako harrera egiteko bidaia gastuak ordaintzen laguntzea

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Tolosako Udalak diru-laguntza baten bidez hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 893€ eurokoak izango dira, 0500.481.01.23100 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, bere kasuan, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantziazio-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.



TOLOSAKO
UDALA

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatu behar da «kontu erraztua» izeneko modalitatearen bidez, baldin eta diru-laguntzen zenbatekoa 15.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada, eta kontu erraztuak jaso behar du, oro har, honako dokumentazio hau:

a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko diren zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.

b) Gastuen eta inbertsioen zerrenda bat, ataletan banatuta, eta identifikatuta dituela hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.



TOLOSAKO
UDALA

d) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.

Organo emaileak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian, laguntza emateko-erabakian edo hitzar menean zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.

b) Gainerako egiaztagirietatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: 100eko 100.
- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar edo hogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 70.
- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.
- Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.
- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: 100eko 20.

Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntzaren ordainketa egingo da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduera dela-eta eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza zati bakar batean ordainduko da egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

Bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinarazi behar zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baita, esaterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari



TOLOSAKO
UDALA

buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egin behar dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Ez da inoiz hizkuntza edo irudi sexistarik erabili behar, hala xedatzen baitute lege-arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eragingarriakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako udal ordenantza.

Hamabigarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena: Lan- eta zerga-legeria. *Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.*



TOLOSAKO
UDALA

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplikatu daitezkeen guztian.

Hemezortzigarrena: Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Tolosako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hemeretzigarrena: Gardentasun ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

BIGARRENA.- Kantitate horren % 100a ordaintzea Bikarte elkarteari emandako laguntza justifikatzeko kontuak aurkezten dituztenean. Diru-laguntza hori 2018ko udal aurrekontuaren 500.481.01.23100 partidaren kargura finantzatu da.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitetzari eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren departamentuari.

ONARTZEA EUSKAL FONDOARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

EUSKAL FONDOA 1996. urtean sortu zen, Lankidetzaren Deszentralizaturiko koordinazio eta laguntza tresna bezala.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako udalak, 2000 urteko irailaren 25ean egin zuen ohizko osoko Bilkuran, besteak beste erabaki zuen "Tolosako Udala Euska Fondoa-Asociación de entidades locales vascas cooperantes-en sartzea elkartekide oso bezala, haren estatutuetatik sortzen diren eginbeharrak bereganatuz eta Estatutu horiek onartuz.

2004ko martxoaren 22an ospatutako ohiko bilkuran erabaki zen elkarteko bazkide diren entitateek Beren aurrekontuetan lankidetzarako aurreikusitako diruaren % 10eko ekarpena egingo dutela gutxienez, EUSKAL FONDOAK antolatutako ekimenak burutzeko.

2018ko ekainaren 14ko Gizarte Politikako Batzorde Informatiboan onartu zen aurten lagunduko diren proiektuak ondokoak izatea:

- *"Ur edangarriaren sistema zabaltzea. La Cañada eta San Luis Tonitzul. II.fasea. Raxruha, Alta Verapaz, Guatemala."* eta

- *" EDATEKO URAREN SISTEMA BAT ERAIKITZEA CHAQUIQUICHE HERRIXKAN". Guatemala.*

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Euskal Fondoari 7.325 €-ko diru-laguntza izenduna ematea. Diru-laguntza hori 0500.491.01.23100 partidaren kargura finantzatuko da.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitetzari eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren departamentuari.

ONARTZEA TOLOSALDEAKO CARITAS-I DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

Historikoki bete du elkarte honek kalteberatasun egoera larrienean dauden pertsonen beren oinarrizko beharrak asetzen laguntzeko ekimena: elikagaiak, garbitasuna, arropa, etxebizitza lortzeko abala, haurren ikasketa materiala edo garraioa,...

Gainera, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailarekin koordinatuta eta lankidetzan burutu izan dute beren zeregina, administrazioak lagundu ezin dituen hainbat egoerei eta hutsuneei erabateko ardurarekin erantzunez.

Elkarteak oinarrizko behar horiek asetzen egiten duen ekarpen ekonomikoa izugarria da, eta udalak beraiekin kolaboratu izan du urte luzez, elkartei ematen dien diru-laguntza kopuru berdinarekin (azken urteetan 9.050 € eman zaizkie, gutxienez, urtero).



TOLOSAKO
UDALA

2017ko abuztuaren 18 argitaratu zen egun indarrean dagoen diru-laguntzak emateko ordenantza aplikatuta, ordea, ezin da bermatu kopuru hori ematen jarraitzerik, eta horrek eragin zuzena izan dezake gaur egun laguntza jasotzen ari diren tolosarren egoeran, beren oinarrizko beharrak asetzerakoan eragozpenak egon daitezkeelako.

Aipatutako ordenantza berrikusi eta Tolosako izaera sozialeko elkarteen errealitatera hobeto egokitzen den ordenantza berria landu bitartean, ezinbestekoa baloratzen da bermatzea Tolosaldeko Caritasi diru-laguntza izendun hau.

2018ko uztailaren 26ko Osoko Bilkuran erabaki zen diru-laguntza izenduna ematea Caritasi, ohiko zerbitzua eman ahal izateko 2018 urtean ere.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Caritas Elkarteari 9.050 €-ko diru-laguntza zuzena ematea, atxikitzen den hitzarmenean jasotzen diren xehetasunen arabera izango dena.

BIGARRENA.- Kantitate horren % 100a ordaintzea Caritas elkarteari, hau da, 9,050 € emandako laguntza justifikatzeko kontuak aurkezten dituztenean. Gehienez ere 2019ko urtarrilaren 31erako aurkeztuko dute dokumentazio hori modu telematikoa.

HIRUGARRENA.- Diru-laguntza hori 2018ko udal aurrekontuaren 500.481.01.23100 partidaren kargura finantzatuko da.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren departamentuari.

• ONARTZEA URKIZUKO ALURTXIKI AUZO ELKARTEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.

AURREKARIAK

2014ko irailaren 24an, Tolosako Udala eta Urkizuko Alurtxiki Auzo Elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen, auzoaren garapenerako helburuak gauzatzeko asmoarekin. Hitzarmen hau indarrean dago, 4 urteko iraupena baitu. Horren baitan, gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko konpromisoa hartua du udalak eta urtero 6000 €-ko aurrekontu partida bat jartzen du udalak.

Elkarteak baimena eman dio Tolosako Udalari, Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko dituen betebeharrak betetzen dituen zuzenean kontsultatzeko.

Diruz lagunduko diren jarduerak bat datoz Elkartearen Estatutuetan araututako xedearekin.



TOLOSAKO
UDALA

Alurtxiki Auzo Elkarteak 2018ko irailaren 19an sarrera data duen idatzi baten bitartez, ekintzen programa aurkeztu eta diru-laguntza eskaera egin zuen.

2018ko udal aurrekontuetan, ingurumenetik 6.000 € gorde dira modu izendunean Auzo Elkarte hau diruz laguntzeko 1100 481.01. 17200 zenbakidun partidan

TXOSTENA Diru-laguntzaren azterketa

-Eskatzailea Elkarte erregistratu bat da, Alurtxiki auzo elkarteak CIF G20979571. Bere xedea bat dator diruz lagunduko diren jarduerekin. Elkartearen estatutuak espediente honekin batera gordetzen dira. Elkarte honen ordezkaria Jon Lopetegi Ormazabal da.

-Kontuhartzaitzak baieztatuko du elkarteak eguneko bere betebeharrak, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin. Espedientearen dago gordea elkarteak Udalarari emandako baimena kontsulta hau egiteko.

- Proposamenaren azterketa. Landa auzoak bizirik mantentzeko eta biztanlegoa mantentzeko beharrezkoa da horrelako ekimenak sustatzea.

Hori dela eta, Tolosako Udalak 6.000 €-ko diru-laguntza ematea proposatzen da. Jardueren antolaketarako aurrekusten den aurrekontu osoa 8.581 €-koa da (BEZa barne). Diru-laguntzak beraz ez du gastuaren muga gainditzen.

Udal Idazkaritzak eta Kontuhartzaitzak aldeko txostena egin dute.

Eskaeraren gaineko espedientearen txostenak daude gordeta.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea 2018ko Urkizuko jarduera kulturalak gauzatzeko Alurtxiki auzo Elkarteari 1100 481.01. 17200 partidatik 6000 €-ko diru-laguntza izenduna ematea.

BIGARRENA.- Diru-laguntza honen % 50a aurreratzea, hau da 3.000€. Jarduerak bukatu eta diru-laguntza justifikatzeko, Tolosako Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko IV. kapituluaren arabera egin beharko da.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri, Alurtxiki Auzo Elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Departamentuari jakinaraztea.



TOLOSAKO
UDALA

• **ONARTZEA BEDAIOKO ARTUBI AUZO ELKARTEARI DIUR-LAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO HITZARMENA.**

AURREKARIAK

2017ko maiatzaren 18an, Tolosako Udala eta Bedaioko Artubi Auzo Elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen, auzoaren garapenerako helburuak gauzatzeko asmoarekin. Hitzarmen hau indarrean dago eta legealdiko iraupena du. Horren baitan, gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko konpromisoa hartua du udalak eta urtero 6000 €-ko aurrekontu partida bat jartzen du udalak.

Elkarteak baimena eman dio Tolosako Udalari, Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko dituen betebeharrak betetzen dituen zuzenean kontsultatzeko.

Diruz lagunduko diren jarduerak bat datoz Elkartearen Estatutueta araututako xedearekin.

Artubi Auzo Elkarteak 2018ko urriaren 25ean sarrera data duen idatzi baten bitartez, ekintzen programa aurkeztu eta diru-laguntza eskaera egin zuen.

2018ko udal aurrekontuetan, ingurumenetik 6.000 € gorde dira modu izendunean Auzo Elkarte hau diruz laguntzeko 1100 481.01. 17200 zenbakidun partidan

TXOSTENA Diru-laguntzaren azterketa

-Eskatzailea Elkarte erregistratu bat da, Bedaioko Kultur Elkarte "ARTUBI" CIF G20681029. Bere xedea bat dator diruz lagunduko diren jarduerekin. Elkartearen estatutuak espediente honekin batera gordetzen dira. Elkarte honen ordezkaria Gaizka Jauregi Berakoetxea da.

-Kontuhartzailtzak baieztatuko du elkarte egunean dagoen bere betebeharreran, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin. Espediente dago gordea elkarteak Udalari emandako baimena kontsulta hau egiteko.

- Proposamenaren azterketa. Landa auzoak bizirik mantentzeko eta biztanlegoa mantentzeko beharrezkoak dira horrelako ekimenak sustatzea.

Hori dela eta, Tolosako Udalak 6.000 €-ko diru laguntza ematea proposatzen da. Jardueren antolaketarako aurreikusten den aurrekontu osoa 13.048,75 €-koa da (BEZa barne). Diru-laguntzak beraz ez du gastuaren muga gainditzen.

Udal Idazkaritzak eta Kontuhartzailtzak aldeko txostena egin dute.

Eskaeraren gaineko espediente txostenak daude gordeta.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Artubi auzo Elkarteari 2018ko Bedaioko jarduera kulturalak gauzatzeko 6000 €-ko diru-laguntza izenduna ematea 1100 481.01. 17200 partidatik.

BIGARRENA.- Diru-laguntza honen % 50a aurreratzea, hau da 3.000 €. Jarduerak bukatu eta diru-laguntza justifikatzeko, Tolosako Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko IV. kapituluaren arabera egin beharko da.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri, Artubi Auzo Elkarteari, Kontu-hartzaitzari eta Ingurumen Departamentuari jakinaraztea.

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 14:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA